



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2019ko MAIATZAREN 21ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2019ko maiatzaren 21ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Onintza Gorostidi Murua

Bere ezin etorria azaltzen dute: Uxue Etxebeste Eizagirre eta Xabier Mugika Letamendia

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - ✓ 2019ko martxoaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta.
 - ✓ 2019ko apirilaren 2an egindako ez ohiko bilkuraren akta.
 - ✓ 2019ko apirilaren 29an egindako ez ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2019-2020 epealdirako Plan ekonomiko-finantziarioa onartu, hala bada.**
- 5. Euskal Emakumeen birako etapa bat antolatzeko Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo udalen arteko lankidetzaz hitzarmenaren onespena, hala bada.**
- 6. Beleburupe guraso elkarteak 2018 urtean jaso zuen diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
- 7. Beleburupe guraso elkarteak 2019 urterako eginiko diru-laguntza eskaeraren onespena, hala bada.**
- 8. Alkizako Itsurain Larre proiektuaren barruan Arburu lursaila erabiltzeko baimena eskaera, I.Z., Y.I., J.I.G. eta I.M .**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

9. Tolosaldeko Atariari 2018 urtean emandako diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada.
10. Tolosaldeko Atariari 2019 urteari dagokion diru-laguntza onestea, hala bada.
11. Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuaren esleipena, hala bada.
12. 2019 urteari dagokion langileen opor egutegien onespena, hala bada.
13. 2019 ekitaldirako Tolomendi-ri dagokion ekarpena onartzea, hala bada.
14. G.D.R. andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.
15. Alkizako Eltzaurpe etxearen aurreko zoruan konponketak egiteko obra baimena eskera, G.C.
16. Alkizako Garro baserriko hegoaldeko fatxadan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera, B.R.
17. Alkizako Herri Ostatuan hainbat lanen esleipena, hala bada.
18. Ur azpiegiturak berritzeko lanen esleipena, hala bada
19. Beste batzuk.
20. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2019ko martxoaren 26ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2019ko apirilaren 2ko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2019ko apirilaren 29ko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 47/2019tik 61/2019ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Onintza Gorostidi zinegotzia arratsaldeko 20:00 orduetan bertaritzen da Udalbatzarrera.

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

IZFE	1.944,78
ACSOL	428,13
ACSOL	65,73
ACSOL	30,47
ACSOL	72,06
ACSOL	188,89
ACSOL	47,93
ACSOL	264,52
ACSOL	40,08
ACSOL	125,53
EDURNE BENGOA	188,66
EDURNE BENGOA	188,66
EDURNE BENGOA	188,66
MOVISTAR	75,12
ACSOL	231,01
EUSKALTEL	105,73
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	334,96
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	111,93
KUKU-LORE	8,91
TOLOMENDI	163,95
EUSKAL-HOTZ	272,25
OSK	544,50
CDI INFORMATICA	45,01
ARGITU	163,65
EBA ERKIZIA	1.165,31
SOLRED	104,37
BIDATEK	1.118,04
ULAHI	569,22
CARPINTERIA ATARI	78,89
KUKU-LORE	140,85



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ZUENTZAT ARTE ESKOLA	281,25
IZADI	193,60
IBERDROLA	39,58
SOS FIRE	435,48
CORREOS	4,11
NORTEGAS	1.215,47
MOVISTAR	80,46
EUSKALTEL	110,04
EDURNE BENGOA	188,66
NORTEGAS	207,61
NORTEGAS	81,30
EBA ERKIZIA	1.242,27
IU JATETXEA	500,00
GASOLEOS ALKORTA	33,88
M.URANGA	383,33
DIMARPE	170,79
IZADI	152,94
GRAFICAS JUARISTI	473,35
TOLOMENDI	163,95
CALPARSORO INDUSTRIAL	11,50
IBERDROLA	38,90
ARGITU	217,52
SOLRED	61,00
NORTEGAS	195,39
MOVISTAR	169,79
IVAP	114,00
BELAKO	30,00
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	396,00
CORREOS	5,66
ASUN MURUA	96,00
TXINTXUA FILMS	242,00
ACSOL	119,40
ACSOL	114,79
ACSOL	196,10
ACSOL	134,25
ACSOL	77,78
ACSOL	146,80
ACSOL	43,83



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ACSOL	59,83
ACSOL	36,03

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **17.472,44** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA **2019-2020 EPEALDIRAKO PLAN EKONOMIKO-FINANTZIARIOA ONARTU,** **HALA BADA**

Ikusita, 2018ko likidazioaren ondoren Alkizako Udala behartuta dagoela Plan ekonomiko finantzarioa egitera, 2019-2020 urteetarako.

Ikusita prestatu dela Plan ekonomiko finantzarioa, ondorengo izanik:

SARREREN KAPITULUA	OINARRIZKO URTEA				
	2018 LIKIDAZIOA	2019 AURREKONTUA	2020 LIKIDAZIOA	2020 AURREIKUSP.	2021 AURREIKUSP.
1 Zuzeneko zergak	61.165,91	63.310,00	63.310,00	64.576,00	64.576,00
2 Zeharkako zergak	59.830,13	15.000,00	15.000,00	15.000,00	15.000,00
3 Tasak eta bestelako sarrerak	55.897,41	56.715,00	56.715,00	57.800,00	57.800,00
4 Transferentzia arruntak	325.145,31	332.685,00	332.685,00	345.992,40	352.566,26
5 Ondare sarrerak	6.185,33	6.110,00	6.110,00	6.110,00	6.110,00
6 Ondasun inbertsioen besterentzea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7 Kapital transferentziak	109.751,27	152.131,71	152.131,71	112.500,00	112.500,00
8 Aktibo finantzarioak	0,00	29.947,00	29.947,00	0,00	0,00
9 Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
SARRERAK, GUZTIRA	617.975,36	655.898,71	655.898,71	601.978,40	608.552,26

GASTUEN KAPITULUA	OINARRIZKO URTEA				
	2018 LIKIDAZIOA	2019 AURREKONTUA	2020 LIKIDAZIOA	2020 AURREIKUSP.	2021 AURREIKUSP.
1 Langileria gastuak	210.889,51	213.535,00	213.535,00	210.000,00	213.150,00
2 Ond. arruntak eta zerbitzuen gastuak	160.741,20	174.225,00	174.225,00	170.958,89	173.523,27
3 Gastu finantzarioak	21,00	20,00	0,00	0,00	0,00
4 Transferentzia arruntak Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	90.529,14	89.241,51	89.241,51	88.449,51	88.449,51
5 Ondasun inbertsioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 Ondasun inbertsioak	178.098,08	178.877,20	178.877,20	132.570,00	132.570,00
7 Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
8 Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GASTUAK, GUZTIRA	640.278,93	655.898,71	655.878,71	601.978,40	607.692,78



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2019-2020 urterako aurkeztutako Plan ekonomiko finantzarioa onestu.

BIGARRENA: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea.

BOSTGARREN PUNTUA

EUSKAL EMAKUMEEN BIRAKO ETAPA BAT ANTOLATZEKO ADUNA, ALKIZA, ASTEASU, LARRAUL, VILLABONA ETA ZIZURKILGO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udalek, “Euskal Emakumeen birako” etapa bat antolatzeke asmoa azaldu dutela.

Ikusita, Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udalek sinatuko duten hitzarmenak, “Euskal Emakumeen Birako” etapa bat antolatzea ahalbideratuko duela.

Ikusita Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udalek sinatuko duten hitzarmenean, bera arautuko duten klausula eta zehaztapenak jasotzen direla. Bertan 2019ko diru laguntza bideratzea zehazten delarik.

Ikusita, Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udalek sinatuko duten hitzarmenaren helburua “ Euskal Emakumeen Birako “ etapa bat antolatzea dela, horretarako Alkizako udalak 1.100,00€ ekarpena egingo du diru-laguntza bezala.

Ikusita, Alkizako Udaleko 2019 aurrekontuko 1 0000.481.340.00.03 aurrekontu –sailean baliabide ekonomiko eta finantzario nahikoak daudela, Alkizako Udalak Hitzarmen honetan hartzen dituen konpromisoak bete ahal izateko.

Ikusita, hitzarmen honetan aipatutako ondorioetarako, Alkizako Udalak 1.100,00€ ekarpena egingo duela, 2019ko ekitaldirako adieraziriko jarduerak gauzatzeko. Ekarpen hori honela egingo da:

- Ordainketaren %90a hitzarmena sinatutakoan, edo, luzapena izanez gero, hura gertatzen denean.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Hurrengo ordainketa %10a, egindako gastuen ziurtagiria aurkeztu ondoren egingo da zuriaketa, eta zenbatekoa ordaindu gabeko zenbateko justifikatua izango da.
- Nolanahi ere, hitzarmenean adieraziriko dokumentuak aurkeztu beharko dira justifikazioa burutzeko.

•
Ikusirik, Alkizako Udalak interesa duela “ Euskal Emakumeen Birako “ etapa bat Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udalekin elkarlanean antolatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udalen artean sinatuko den Lankidetzaren hitzarmena onartzea, 2019ko diru-laguntza bideratzea helburu duena, honekin batera eransten dena.

BIGARRENA: Alkate Jauna ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sinatzeko.

SEIGARREN PUNTUA

BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK 2018 URTEAN JASO ZUEN DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Beleburupe Guraso Elkarteak aurkeztu duela, 2018.urtean Alkizako Udalak emandako diru-laguntzaren memoria eta dagozkion fakturak.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Beleburupe Guraso Elkarteak aurkezturiko 2018 urtean emandako diru-laguntzarari dagokion zuritzea onestea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Beleburupe Guraso Elkarteari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK 2019 URTERAKO EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Beleburupe guraso elkarteak, ekaineko egun osoko festan, San Juan bezperako festan, herriko festetan, San Martin eguneko festan eta gabonetan hainbat ekintza burutzen dituztela. Hauen kostua finantzatzeko



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Alkizako Udalari diru-laguntza eskaera egiten dutelarik.

Ikusirik 2019 urteko udal aurrekontuetako 481.320.01.01 partidaren Beleburupe Guraso elkarteari 320,00euroko diru-kopuruko laguntza aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Beleburupe guraso elkarteari 320,00 eurotako diru-laguntza ematea, urtean zehar hainbat ekintza burutzeko.

BIGARRENA: 320,00 eurotako gastua onartzea, eta bere ordainketa egitea agintzea 2019 urteko udal aurrekontuetako 481.320.01.01 partidaren kontura.

HIRUGARRENA: Beleburupe Guraso Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO ITSURAIN LARRE PROIEKTUAREN BARRUAN ARBURU LURSAILA ERABILTZEKO BAIMENA ESKAERA, I.Z., Y.I., J.I.G. eta I.M.

Ikusirik I.Z, Y.I., J.I.G. eta I.M jaunek eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

“Alkizako Itsurain Larre proiektuaren parte hartzen ari garela.

Jakin izan dugu, Alkizako udalaren jabetzakoa den ARBURU lursaila une honetan inori alokatu gabe dagoela.

Interesa dugula, aipaturiko proiektuaren barruan lursail hau ere erabiltzeko

Hau guztia, kontutan harturik, ondorengo

ESKAERA LUZATZEN DIOGU, UDALBATZARRARI

Alkizako Itsurain Larre proiektuaren barruan ARBURU lursaila sartzea eta ondorioz, baimena ematea hau erabili ahal izateko.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Besterik gabe, gure eskaera onartua izango delakoan, agurtzen gara.”

Gaia azterturik, Xabier Mugika eta Onintza Gorostidi zinegotzien abstentzioarekin, Udalbatza honek, gehiengoz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Itsurain Larre proiektuaren barruan ARBURU lursaila sartzeko onespena ematea eta ondorioz baimena ematea hau erabili ahal izateko.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO ATARIARI 2018 URTEAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2018ko ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua, Talde horrek eta Alkizako Udalak hitzartua duten 2018ko Lankidetza hitzarmenean adierazten den modura.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. –k aurkezturiko 2018 ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua onestea.

HAMARGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO ATARIARI 2019 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldeak aurkezturiko Alkizako Udala eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. –ren arteko 2019 urterako Lankidetza Hitzarmena. Hitzarmenaren helburua, TKT-K eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea izango da.

Ikusirik aipaturiko Lankidetza hitzarmenean, Alkizako Udalak, Tolosaldeko Komunikazio Taldeari emango dion diru-laguntza zehazten dela. Alkate-Lehendakari jaunak biztanleko 4€ ematea proposatzen duelarik.

Gaia azterturik, bertaratuek, gehiengoz, ondorengoa,



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldearen eta Alkizako Udalaren arteko Lankidetzeta hitzarmena onestea, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko. Hitzarmena 2019 urterako balioa izango du.

BIGARRENA: Jon Umerez Urrezola, Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakari jauna ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 1.468,00 eurotako diru ekarpen zuzena ematea, egonkortasun ekonomikoa bermatzeko (biztanleko 4€). Ordainketa, 2019ko udal aurrekontuetako 471.334.00.01 partidaren kargura egingo da.

LAUGARRENA: 1.468,00 eurotako gastua onestea.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldeari ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRIAN DAUDEN ZENBAIT BERDEGUNE ETA PARKEEN MANTENU ZERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuak kontratu bidez esleitzeko beharrean agertu dela Alkizako udala, herri langilearen lan zama oso handia delako.

Lan hauek egiteko Iratze Lorezaintza S.L. enpresari aurrekontu bat eskatu zaio, kontratu txiki baten aurrean agertzen garelako.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Iratze Lorezaintza S.L. enpresari Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuak kontratatuzeko onespena ematea, urte beteko kontratua izango da eta aurrekontua 4.486,95 euro direlarik.

BOSTGARRENA: Aipaturiko gastuak 2018 aurrekontuetako 1 0000.210.171.00.01 partidaren kargura egitea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Iratze Lorezaintza S.L. enpresari ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA
2019 URTEARI DAGOKION LANGILEEN OPOR EGUTEGIEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Udal langileak aurkeztu dutela 2019 urterako lan eta opor egutegiak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udal langileak aurkezturiko 2019 urterako opor egutegiaren onespena.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA
2019 EKITALDIRAKO TOLOMENDIRI DAGOKION EKARPENA ONARTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Landa Garapen Elkartek- "Tolomendi-k" aurkeztutako idatzia non 2019ko apirilaren 4ean ospatutako Batzar Orokorrean 2019 ekitaldirako Elkartearen aurrekontua onartu zela jakinarazten den.

Ikusirik 2019 ekitaldirako onartutako aurrekontuaren arabera Alkizako Udalari 2.791,69 euro ordaintzea dagokiola.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosako Landa Garapen Elkartea-Tolomendiri 2.791,69 eurotako gastua onartzea eta ekarpena burutzea. Udal aurrekontuetako 422.943.01.01 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 2019 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa aurreikustea.

HAMALAU GARREN PUNTUA
G.D.R. ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik, G.D.R. andreak eginiko eskaera, non eskola zaharreko fatxadako harria, Garaikoetxea baserriaren zaharberitzean erabili nahiko duela, horregatik, soberan dagoen harria hartzeko baimena eskaera egiten duen.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- G.D.R. andreak eginiko baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako eskola zaharreko soberako harria hartzeko baimena ematea, ondoren harri hau, Garaikoetxea baserriaren zaharberritzean erabiliz.

HAMABOSTGARREN PUNTUA

ALKIZAKO ELTZAURPE ETXEAREN AURREKO ZORUAN KONPONKETAK EGITEKO OBRA BAIMENA ESKERA, G.C.

Ikusirik, G.C. andreak eginiko eskaera, non Alkizako Eltzaurpe etxearen aurreko zoruan konponketak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak, 2019ko apirilaren 26an eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO ELTZAURPE ETXEAREN AURREKO ZORUAN KONPONKETAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

G.C. andreak, Alkizako Eltzaurpe etxearen aurreko zoruan konponketak egiteko baimena eskatzen du, gaur egungo lekuaren argazkia eta batazbesteko aurrekontu bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako eskarian, Eltzaurpe etxearen aurreko atarian harrotuta dauden zoruko eta balkoiko baldosa batzuk aldatu nahi direla esaten da, lan hauen batazbesteko aurrekontua, 300 €-koa izanik (BEZ-a gabe).

2/2006 Lurzoru legearen 199 artikuluaaren arabera, "Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren kontserbatze eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko."

Hiri antolaketako 6.4 artikuluaaren arabera, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dute.

Eltzaurpe etxea, Alkizako lur-hiritargarran kokatua dago, bereziki UEU 19 "Bi Lagunak" unidatean. Alkizako arau subsidiarioen arabera etxeak ez du inolako katalogazio edo



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

babes berezirik. Etxea kontsolidatua dago, barne eta kanpo moldaketak onartzen direlarik.

Aurkeztutako lanak, kontserbatze lanak izanik eta Alkizako arau subsidiarioekin bat eginik, baimengarriak direla iruditzen zait.

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Obra hondakinak, baimendutako zabortegei batera eraman beharko dira eta lanak amaitzean, eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean"

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Jon Umerez Alkatearen abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- G.C.. andreak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Eltzaurpe etxearen aurreko zoruan konponketak egiteko obra baimena ematea, betiere, Udal aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

HAMASEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO GARRO BASERRIKO HEGOALDEKO FATXADAN KONPONTZE LANAK EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, B.R.

Ikusirik B.R.R. andreak eginiko eskaera, non Alkizako Garro baserriko hegoaldeko fatxadan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak 2019ko maiatzaren 7an eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO “GARRO” BASERRIKO HEGOALDEKO FATXADAN KONPONTZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

B.R.R. andreak, “Garro” baserriko hegoaldeko fatxadan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, lan hauen aurrekontua eta gaur eguneko egoera azaltzen duten argazkia aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aurkeztutako idatziaren arabera, Garro baserriko hegoaldeko fatxadaren goialdea pikatu, saneatu eta pintatu nahi da. Lan hauen aurrekontua, 985 €-koa da (BEZ-a gabe).

2/2006 Lurzoru legearen 199 artikuluaen arabera, "Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko."

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.

"Garro" baserria Alkizako lur ez hiritargarrin kokaturik dago, bereziki *Erabilerarik Esleitu Gabeko* lurrean. Baserria Alkizako arau subsidiarioen katalogoaren barruan sartua dago. 1997ko urriaren 22ko Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuaren Erabakiaren arabera, **A motako** balizko arkeologia guneen babesa du, eraikinen hornez barruko esparrua hartzen duena.

Alkizako lur ez hiritargarriko aldatutako araudiaren arabera, aurretik hor dauden baserriak kontsolidatuak gelditzen dira, barne eta kanpo moldaketak onartzen direlarik. Fatxadaren akabera, **argiak, zarpiatuak, pintatuak edo harrizkoak** izango dira.

Interesa duen eraikin bat izanik, baserrian aurki daitezkeen balio bereziko osagari arkitektoniko edo artistiko guztiak mantenduko dira, esaterako, armariak, ateburuak, etxaurrearen egituraketa, eta abar. Gipuzkoako Foru Aldundiko ondare departamenduak, kasu hauetan erabili behar diren morteroak, kare edo kare-zementuzkoak izatea gomendatzen du gainera.

Aurkeztutako lanak, aurreko baldintzak betetzen badituzte, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Obra hondakinak, baimendutako zabortegei batera eramane beharko dira eta lanak amaitzean, eraispene-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean"

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- B.R.R. andreak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Garro baserriko hegoaldeko fatxadan konpontze lanak egiteko obra baimena ematea, betiere, Udal aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen badira.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

HAMAZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRI OSTATUAN HAINBAT LANEN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Herri ostatuan hainbat lan egin behar direla, zerbitzua ahalik eta hobetoen eskaintzeko. Lanak ondorengoak izanik:

Tabernan eta komunean isolamendu sabaia jarri.

Tabernako solibon tratamendua.

Herri ostatu osoaren pintaketa.

Sukaldeko zoruaren irristagarritasuna kentzeko pintaketa.

Tabernako eta jangelako zoruen aldaketa.

Komunaren isolamendua.

Ikusirik Alkizako Udalak ez dituela baliabide material eta pertsonalik aipaturiko lanak egiteko.

Ikusirik aipaturiko lan horiek egiteko Rentokil initial, Aislamiento Lizartza S.L. eta Erkizia aroztegia, S.L. –ri eskatu zaiela.

Ikusirik, Kontratu txiki baten aurrean aurkitzen garela.

Ikusirik 2019ko aurrekontuetako 683.933.00.02 kontu sailean lan hauek egiteko diru kopuru nahikoa dagoela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Rentokil Initial enpresari, Herri ostatuko tabernako soliboei tratamendua emateko kontratua esleitzea. 826,79 euroko diru-kopuruan.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Jose Julian Perez Aramburu-ri Herri ostatu guztia margotzeko eta sukaldeko zorua irristagarritasuna kentzeko produktua emateko kontratua esleitzea 2.212,33 eurotako diru kopuruan.

HIRUGARRENA: Aislamientos Lizartza, S.L. ri Herri ostatuko tabernan eta komunetan aislamenduko sabaia jartzeko kontratua esleitzea, 4.397 eurotako diru-kopuruan.

LAUGARRENA: Erkizia Aroztegia, S.L.ri Herri ostatuko taberna eta jangelako zorua aldatzeko kontratua esleitzea, 7.643,38 eurotako diru-kopuruan.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri interesatuei ematea.

HEMEZORTZIGARREN PUNTUA
UR AZPIEGITURAK BERRITZEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA

Batzarkideak, aho batez, gaia mahai gainean uzteko erabakia hartzen dute.

HEMERETZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HOGEGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.50 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.